



Atxikimendutik erabilerara...

Pasatu gira atzo euskara zakitenek ukatzen zuten egoera batetarik, gaur euskara ez dakitenek aldeko eleak dituzten egoera batetarat. Artean, hizkuntza beti galtzen ari da.

“Hastio / Maite” arrazoinkatzeak ez dauku hizkuntza berpizten laguntzen. Erabileraren arorat hupatzea izan behar dugu helburu.

Baina helburu hori ezin da izan “hel buru”, mementoko pratika bat baizik. Gure egiteko moldeak galdezkatzea erran nahi du, inertziak konplexak errexkeriak, gure burueri emaiten ditugun aitzakiak, itzulipurdikatzea...

Gure buruari harrika arituz ere ez gira urrun joanen. Engoitik hizkuntzari diogun ikuspundua da aldatu behar duguna, gaia ikusteko dugun luneta pareka kanbiatu.

Zer erran nahi du ? Ahalgea den lekuan konfiantza, beldurra den lekuan lasaitasuna, konplexa den lekuan naturaltasuna ezartzea dela jokoan. Baikorki, argumentu pare bat sakelan, komunitate baten parte izaiteak emaiten duen indarrez kargaturik, konbikzioz eta ... euskaraz, urrats frango egiten ahal duela bakoitzak, autoestima azkartu, bide berriak ireki, mundu bat deskubritu eta hazten parte hartu.

ZABALIK elkartearen xedea da sentsibilisaziorako lehen urrats gisa Otsail Ostegun hauen azken gaualdia gogoeta hauri dedikatzea. Ondoko hilabeteetan formakuntza hau luza ginezake bi sail hauek barnatuz : soziolinguistikaren oinarrien ezagutza, hizkuntza eta kulturgintza-ren arteko harremana.

Formakuntza hauentzat, zuen izenak aitzinetik eman behar dira. Email bidez edo telefonoz (ikus azpian).

Eta internet balin baduzu, zoaz gure webgune berriaren bisitatzerat. Hemendik aitzina, han ezarriko ditugu gure elkartearen eta Amikuzeko euskalgintza osatzen dugun beste elkarte guzien berriak erregularki.



2014ko

OTSAIL OSTEGUNAK



6

Eñaut ETXAMENDI kantu egilea...

Ze, noiz, nola, zendako sortu dira kantu horiek ?
Kantu sortzailearen beraren ahotik

13

Nola hel zero hondarkinetarat ?

% 20 birziklatzetik % 80 egitera dohan Gipuzkoa...
Malores ETXEBERRIA eta Pello ZUBIRIA Hernanin Zero Zabor taldekoak

20

FAGOR Etxetresnak erorita, zertan dira koperatibak ?

Barnean diren partzuerren lekukotasuna
Rene HARLUXET Mithindarra eta Ximun LACROIX Behauztarra

27

« ZERGATIK EZ ? » ikastaldia

Norbere bizian hizkuntza erabiltzeko akuilu xixta ...
Oskar ZAPATA, TOPAGUNEA euskara elkartearen federakuntzakoa.

DONAPALEUN

Lau mintzaldiak (eta trago bat ondotik) :

Herriko Xerbitxugunearen gibleko salan
arratseko 8ak 30tarik 11ak arte.



Eñaut Etxamendi kantu egilea...

Eñaut Etxamendi ez da gehiago aurkezten.

Ezterentzubin sortua 1935ean, erakasle – baratzezaina gizon engaiatua izan da gazterik. 1960 urteen inguruan, peritzen eta ura eskutik lerratzen den bezala desagertzen zohan Euskal Herri baten aitzinean, besoak dilindan egoiteko partez, barneko sua eta gogoaren oldarra plazaratzen eraman du bizi guzia. Belau-naldiak harrotu eta markatu ditu olerki edo elaberrien bidez, eta alabaina ahanztu gabe uzten ahal ez ditugun solasaldi zirimolen buhako eta airaldiz...


Eñaut Larralde bere bidelagunarekin, herri huntako plaza gehientsuenak kurritu dituzte, melankoliarekin batera oldarra, eta doluarekin batera bizi nahia orroaz kantatuz, hurubiaka beharrez...

Maiatz argialetxeak bere idatzien 6. liburukia publikatu berri du. Horren kariatara, mithindarrak moldatu kantuen bidaia egin nahi ginuke berriz.

Nola sortu zituen, ze kontestutan, aire eta hitzen egiteko ze molde erabili du sortzaileak, artistaren erreferentziak zoin dira kantugintzan, ... horra xilatzeraren entseutuko giren sekretuak.

Etorriko direneri gomendatzen dugu Maiatzen argitaratu liburua edo Antologia diskoetako liburukia jarraikaraztea, salbu gogoz balazkite denak, hain segur harat-hunatka ibiliko baititugu gaualdi horretan.

Kantuz hasi eta finitzeko bistan dena!



Nola hel Zero Hondarkinetarat ?

Hondarkinak arazo dira. Nola desagerraraz sobera gasta gabe eta gure ingurua eta osagarria funditu gabe ?

Gipuzkoa aldean, duela bospasei urte Usurbil herrian (5000 biztanle) atez-ateko bilketa sistema abiatu dute. Plan ofiziala erraustegia egitea zen eta beraz, zikin guziak nahasirik biltzeaz ez ziren axola. Usurbilgo esperientziari jarraituz, hainbat herri bide bera hautatu dute : atez-ateko bilketa, erran nahi baitu astelehenetan papera, asteartean ferlankak, asteazkenetan organikoa, ostegunetan basokiak, ... Lehen % 20 birziklatzen bazuten, gaur % 80a inguru egiten dute sistema horrekin Gipuzkoako 140.000 bizitzaileek jadanik. Gisa hortako aldaketak ez dira debate eta zailtasunik gabe eremaiten, eta zaborrena delarik gaia, pentsa nolako arrangura, beldur, panika, ... gainditu behar izan dituzten.

Berriki, Gipuzkoako erraustegi proiektua ehortzia dute, bilketa selektibo horien ondorioz ez bailukete aski birziklatze errefus ukanen labe baten bazkatzeko. Hondarinen biltzeko moldea aldatzeak ekologian eta gasta sarian eragina badu, ez dira ere gutiestekoak jendearen baitan eragiten duen autonomia eta eragin ahalmena.

Pello Zubiria eta Malores Etxeberria Hernanin Zero Zabor taldekideak dira. Esperientzia horren poz, neke, esperantza eta lorpenen lekukotasuna ekarriko digute.



Fagor Etxetresnak erorita, Zertan dira kooperatibak ?

Arrasate ingurua ikaratu da bortizki azken urtean. Fagor Etxetresnak kooperatibak faillita egin ondian, 2000 partzuerrek lana galdu dute bat-batean.


Mondragon taldeko 110 kooperatibetan, Euskal Herrian berean 35000 partzuer kondatzen dira. Lanean, aise gehiago dira, munduan gaintu dituzten filiala guziak kondatuz. Langile kooperatiba hauen historia azken 50 urteetan gertatzen da, eta mota guzietako alorretan sortu dira, zerbitzu, komertzio, ... eta industrian Fagorren gisa.

Zer gertatu da ? Nolaz hortatu dira ? Kooperatiben sistema ote da hobendun, ala berak du ahalbideratu krisi latz baten ondorioen ezitza ?

Denetarik entzun izan da, eta iduritu zaigu sistema barnetik ezagutzen duten bi amikuztarrek beren lekukotasuna ekarri, azken 50 urteetan loratu den mirakulutxo horren gako zontaiten ulertzen laguntzen ahaliko gintuela.

Rene Harluxet Bithindarra LKS kooperatibako arduradun teknologikoa da eta Ximun Lacroix Behautarra Mondragon Assembly kooperatibako proiektu eremaita lanetan ari da.

Bi belaunaldi desberdinetakoak izan-ki, bi kooperatiba desberdinetan, baina ber taldean (MCC taldea) bakotzak bere lekutik nola ikusten eta bizitzen dituzten gertakari horiek bai eta beren partzuer kondiziona espikatuko daukute.



Zergatik ez ? ikastaldia

Otsail ostegunaren laugarren gaualdia, sekulan ez eta, formakuntza saio bat izanen da, Topaguneako Oskar Zapataren eskutik.

Betiko errana da, multxo batean, hamar jendeetarik batek ez badaki euskaraz, denak frantsesez hasten girela automatikoki. Gertatzen da ere, inertzien ondorioz, bi euskaradun frantsesez aritzea, euskaraz ahal luketela jabetu gabe. Balio du beraz lantzea noiz eta nola euskaraz hartzen dugun hitza, noiz ixiltzen, noiz bestera pasatzen. Ikastaldiaren helburua da norbere hizkuntza usaien kontzientzia hartzea, eta elgarrekin ikustea nola alda daitezken hartuak ditugun ohidurak, gaia baikorki landuz, eta galdu eremu batzu berreskuratzeko kuraia bilduz berdin.

Izena eman

Ikastaldia otsailaren 27an izanen da eta 12 jendeek parte hartzen ahal dute batera, egin ahala interaktiboa izaiteko gisan. Ikastaldi bat baino gehiago planta ditzazkegu, baina hortarako zuen izena eman behar duzue urtarilaren 29ko, idatziz gure emailera : zabalikelkartea@gmail.com edo deituz 0788188896.

Kataluniatik jina zauku Tallers per la llengua (TELP) formakuntza moldea. Gure hizkuntzarekin dugun harremana doloretzua, konplexez bete eta itoa izaitetik, hortaz gogoeta egitea eta jarrera baikorrak sustatzea du helburu.



exam/ko algate.

11

Rate.

